

# Donostian, 2010eko urtarrileko 29an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua  
Arkotxa, Aurelia, euskaltzainburuordea  
Kintana, Xabier, idazkaria (azken aldean)  
Lizundia, Jose Luis, diruzaina  
Sagarna, Andoni, Iker sailburua  
Iñigo, Andres, Jagon sailburua  
Aleman, Sagrario  
Arejita, Adolfo  
Azkarate, Miren  
Davant, Jean-Louis  
Goenaga, Patxi  
Haritschelhar, Jean  
Irazu, Jose «Bernardo Atxaga»  
Lakarra, Joseba  
Larre, Emile  
Oñederra, Miren Lourdes  
Peillen, Txomin  
Salaberrri, Patxi  
Salaburu, Pello  
Sarasola, Ibon  
Toledo, Ana  
Torrealdai, Joan Mari  
Uribarren, Patxi  
Videgain, Xarles  
Zabaleta, Patxi eta  
Zalbide, Mikel euskaltzainak.

Hauek ere parte hartu dute zegozkien gaietan: Pello Telleria idazkariordea, Alfontso Mujika eta Gabriel Fraile.

– Ezin etorriak eta ahalak: Joan Mari Torrealdai, ahala Andoni Sagarnari, bilkuran egon ez den bitarterako; Andres Iñigok, ahala Sagrario Alemani, bilkuran egon ez den bitarterako; Xabier Kintanak, ahala Andres Urrutiari.

– Ezin etorriak: J. A. Arana Martija, P. Charriton eta B. Oiharzabal.

2010eko urtarrilaren 29an, Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundiko egoitzan, bildu da Euskaltzaindia bere hilabeteko batzarra egiteko. Goizeko hamarretan hasi da bilera. Ondoko zerrendan batzarrean parte hartu duten izenak agertzen dira.

Euskaltzainburuak bilkurari hasiera ematen dio. Lehenik, A. Urrutiak doluminak ematen dizkio A. M. Toledo euskaltzain andereari, honek bere aita 2009-12-29an galdu duelako.

Bestalde, X. Kintana idazkariak ezin etorria jakinarazirik, idazkari gisa ari da bilkura-denboran azkenik euskaltzain izendatu den X. Videgain.

1. Aurreko bilera-agiria onartzen da deus ukitu gabe.

2. **Europako toponimia. Europako itsasoak eta itsasarteak** deitu dokumentua J. L. Lizundiak aurkezten du. Eztabaidagarri izan litezkeen puntuetan *Lion* edo *Liongo golkoa* nola izendatu behar den aipatzen da. Toponimo horren etimologia ez da gardena. M. Azkarate eta M. Zalbidek diotenaren arabera, hobe da txertatu errexa den forma bat Euskaltzaindiak hobestea, ezen eta ez oso berria litekeen forma; eta kasu honetan *Lion* formaren alde agertzen dira.

3. **Exonomastika. Europako lurmuturrak eta penintsulak** deitu dokumentua Alfontso Mujikak aurkezten du.

J. Haritschelhar, M. Azkarate eta P. Goenaga mintzatzen dira, alde batetik *Cap Corse* nola eman behar den euskaraz eta bestaldetik noiz eman behar den *-ko* genitibo ala *0-* marka aposizioan. Batzordekideek gogoan daukaten irizpidearen arabera *-ko* ematea hobesten dute, hiri baten izena agertzen delarik lurmutur baten izenean (*Ajoko* vs *Contentin*). Bereizketa horrek ez ote duen jakitate gehiegi eskatzen aipatu du P. Goenagak. Tx. Peillenek galdegiten du *Dezhnyov* arautzea, eta ez *Dezhnev*. A. Arkotxak Doiharzabalek egin nabegazio liburua kontuan har dadin eskatzen du. Azkenik M. Zalbidek ohartarazten du oso errotua dela euskaraz «*Txindoki*» edo «*Ernio*» soilik aipatzea, hots «*Txindoki mendia*» sintagma osoa erran gabe eta eskatzen du joko bera posible izatea lurmuturrez, hots «*Fisterre*» xoilki erabiliz, ez balinbada beharrezko «*Fisterre lurmuturra*» erabiltzea.

Dokumentuari buruzko oharra egin nahi duen orok idatzirik igorri beharko du otsailaren 19rako.

4. **Orotariko Euskal Hiztegia** egitasmoari buruzko dokumentua Gabriel Frailek aurkezten du hasierako bertsiotik hona egin diren aldaketak aipatuz.

Alde batetik testu klasiko anitz sartu da, mailegu franko ere bai, Larramendiren hitz gehiago, kolokazioak hobeki bereizi direlarik, besteak beste. «*aburu*» eta «*atera*» hitzak adibide gisa eman ditu bi bertsioen arteko aldea erakusteko. Oro har, hazkunde nabarmena hartu dute lehen liburukiek baina horrek axola guti du, ez baitira paperezko euskarrian argitaratuko. X. Videgainek eta M. Azkaratek laudatzen dute egindako indarra. P. Salaburuk epeak zein diren galdetu du eta A. Urrutiak apirileko prest izango dela (Lazarragaren corpusa sartuta) erran du. S. Alemanek hiztegiaren metahizkuntza gaztelera dela eta, arrangura erakutsi du. J. L. Lizundiak

horrela jokatzeko arazo instituzionala izan dela aipatu du eta I. Sarasolak gogorazten du zein baldintzatan atera ziren Koldo Mitxelena-ren denboran lehenbiziko liburukiak. Lan erraldoia dela aipatzen du, edozein zuzenketa mota obratzea oso luzea dela gogora ekarriz. J. Haritschelharrek aipatu du hats handiko lana izan dela OEH, Euskaltzaindiak gidatu duen handiena.

**5. Pedro de Irizar-en *Morfología del verbo auxiliar* liburuen aurkezpen digitala** egiten du A. Sagarnak. Pisu handiko liburukietan barreiatua den informazioa modu errexago batez biltzeko tresna interesgarri dela erakusten du aurkezleak.

**6. *Literatura Terminoen Hiztegia***-ren aurkezpen digitala egiten du A. Sagarnak Literatura Ikerketa batzordeak obratu duen liburuaren bertsio digitalizatua webgunean kontsultagarri baita. «*Bertsio*» hitza adibidetzat harturik, sarrera batetik bestera, hala nola *bertso*-tik *neurtitz* hitzera esteka zombaiten bitartez irakurlea nola ibil daitekeen erakutsi du. A. Arkotxak aldakekarik egin daitekeen galdeginik, A. Sagarnak uste du posta-helbidea ezartzea on litekeela hutsak eta aldaketak kontrolatzeko. Liburuaren kopia hutsa izanik, bertsio digital honek liburuan dauden hutsak errepikatzen ditu: digresio batean, batzartu frankok aipatu du gaurko merkatuan nolako testu-zuzentzaileak dauden, B. Atxagak aipatzen dituelarik Katalunian egindako esperientzia batzuk eta A. Urrutiak diolarik Euskaltzaindiak zuzentzaile on bat beharko duela. Bestalde, P. Salaburuk egin galderari erantzunez, A Urrutiak dio bertsio hori ez dela oraindik publikoari idekia.

**7. Ohorezko euskaltzain berriak izendatzea** proposatzen du A. Urrutia Euskaltzainburuak. J. L. Lizundiak gogorazten du zein diren Euskaltzaindiak erabili ohi dituen irizpideak ohorezko euskaltzainen hautatzeko. Mementoko, 6 ohorezko euskaltzain badira Iparraldetik, 5 Bizkaitik, 4 Gipuzkoatik, 2 Nafarroatik, 5 atzeritik.

Ondoko zerrendan daudenak Ohorezko Euskaltzain izendatzea proposatzen da eta onartzen da:

Bizkaikoak: Gorka Aulestia eta Luis Baraiazarra.

Gipuzkoakoak: Jose Azurmendi, Ana Etxaide, Jose Mari Iriondo eta Xabier Lete.

Nafarroakoak: Pakita Arregi eta Jose Angel Irigaray.

Iparraldekoak: Erramun Baxok eta Marzel Etchehandy.

Atzerrikoa: Joshua A. Fishman hizkuntza-soziologoa.

## 8. Esku Artekoak

**8.1. Jorge Cortes** urgazlearen heriotzaren berri ematen du A.Urrutiak. Urtarri-laren 12an hil zen urgazle nafarra. Haren hilberri-txostena Patxi Zabaletak egitea onartzen da.

**8.2. Juan Jose Zearreta** zenak utzi hutsguna kontuan harturik, kudeatzaile baten kontratatzeko lehen urratsak egin dituela zuzendaritzak dio Euskaltzainburuak; eta kandidatuen bilatzeko iragarkiak prest daudela esan du. Pentsan agertuko diren iragarkiez eta kandidatuen perfilaz galderak egiten zaizkio eta bereziki zein komunikabidetan agertuko diren, hala nola Nafarroan eta Gipuzkoan.

**8.3.** A. Urrutiak aipatzen du egoera ekonomikoa kezagarria dela, Madriletik izan ezik, beste instituzioetatik aurten jasoko diren diru-kopuruetan murrizketak izango direlako. J. L. Lizundia diruzainak xehetasun gehiago ematen du: Madriletik diru-kopuru bera jasoko bada ere, Eusko Jaurlaritzatik eta Bizkaia eta Gipuzkoako Aldundietatik zenbat gutiago etorriko den aipatu du. Apirila gabe, gauzak ez direla arinduko dio, eta gauzak ekaineko beren bidera itzuliko direla uste du A. Urrutiak.

**8.4.** Bizkaia Irratiarekin 2. hitzarmena urtarrilaren 11n sinatu dela jakinarazten du A. Urrutiak.

**8.5.** EHS (Euskararen Historia Soziala) egitasmoan zuzendari-aldaketa gertatu dela jakinarazten du ere Euskaltzainburuak; Joseba Intxaustiren ordez Mikel Zalbide izanen da egitasmoaren zuzendari berria, J. Intxausti aholkulari bihurtzen delarik.

**8.6.** Euskaltzainburuak Euskaltzaindiaren ikurra ematen die oraindikan hartu ez zuten J. L. Davanti eta P. Salabururi.

**8.7.** B. Atxagak aipatzen du *Erlea* aldizkariaren bigarren alea prest dela. Pozik dago lehenbiziko zenbakiak izan duen harreraz. Eskerrak ematen dizkie lagundu dutenei, hala nola Koldo Eizagirri edo A. Arkotxari. Dei egiten die Euskaltzainei parte har dezaten ondoko zenbakietan, prestatzen ari den 2. aleaz sona handiko firmak bildu dituela erantsiz.

**8.8.** Liburu hauek banatzen zaizkie batzartuei Pello Telleriaren eskutik: *Jose Antonio Aranaren bibliotekaren katalogoa* alde batetik, eta bestaldetik, *Juan Mari Lekuona-ri omenaldia* (IKER 23) eta *Plazaberri* (3) berri-papera. Bestalde, Juan Jose Zearretaren omenez familiak egindako oroigarria banatzen zaie batzartuei.

**8.9.** Datorren bilkura Bilbon egingen da, egoitzan, 2010eko otsailaren 26an.

Besterik gabe bukatzen da bilkura 13:45ean.

Andres Urrutia,  
euskaltzainburua

Xarles Videgain,  
Idazkari lanetan (*Arautegia*, 24. art.)

# Ageriko bilkura

Donostian, 2010eko urtarrilaren 29an

Donostian, 2009ko urtarrilaren 29an, Gipuzkoako Diputazioaren Jauregian, arratsaldeko lauak eta erditan, Euskaltzaindiak hastapena eman dio azken denboran hil diren sei euskaltzaleren hil-txostenen entzuteko egin den batzarrari. Honako jaun-andreak bildu dira

Bildu direnak:

Euskaltzain osoak: A. Urrutia euskaltzainburua, X. Kintana idazkaria, J.L.Lizundia diruzaina, A. Sagarna Iker sailburua, A. Iñigo Jagon sailburua, J. Haritschelhar, S. Aleman, M. Azkarate, J.L. Davant, P. Goenaga, J. Lakarra, E. Larre, M. L. Oñederra, Tx. Peillen, A. M. Toledo, P. Uribarren, X. Videgain, P. Zabaleta, M. Zalbide.

Ohorezko euskaltzainak: Pakita Arregi eta Koldo Artola. Ezin etorria adierazi duena: Jose Mari Iriondo.

Euskaltzain urgazleak: Antton Aranburu, Xabier Erdozia, Pello Esnal, Jose Maria Etxebarria, Pruden Gartzia, Maria Pilar Lasarte, Jose Antonio Mujika, Elixabete Perez Gaztelu, Pello Telleria, Manu Ruiz Urrestarazu eta Patri Urkizu. Ezin etorria adierazi dutenak: Ricardo Badiola eta Ricardo Gómez.

Batzordekideak: Kasildo Alkorta eta Erramun Osa.

Euskaltzaindikoko langileak: Lutxi Alberdi, Maixa Goikoetxea eta Amaia Okariz. Ezin etorria adierazi duena: Itziar Rekalde.

Mahaian, Euskaltzainburuaz eta idazkariak gain jarri dira txosten egileak, erran nahi baita, Jean-Louis Davant, Mari Karmen Garmendia, Andres Iñigo eta Jose Luis Lizundia.

Andres Urrutia Euskaltzainburu jaunak ongietorria eskaini die sei lagunen hilberri-txostenen entzutera etorri diren guztiei. Eskertzen ditu bereziki joan ziren euskaltzaleen familiartekoak, hurbilekoak eta askazi guziak. Nostalgia baino urrunago joatea beharrezko dela dio Euskaltzainburuak hildakoek utzitako eredia preziatuz eta jarraikiz.

Jose Mari Iriondo Euskal Herritik kanpoan izanik, Antonio Zavalala (1928-1-23 / 2009-1-2) euskaltzain osoaz idatzi duen txostena A. Urrutiak irakurri du. A Zavalala Tolosan sortu zen eta asko maite zuen Xabiergo gazteluan hil zen. Han igan zituen urte gehienak 1976tik landa. Hura bezalako argitaratzaile oparorik gutitan baizik ez da ezagutu euskal munduan. Berak sortu zuen *Auspoa* bildumak zinez harts handiko langile zela erakusten du, agertarazi zituen liburuak dozenaka kontatzen baitira, batzuk oso ezagunak hala nola Uztapideren edo Xalbadorren bertsoez osatuak, beste batzuk ez hain famatuak baina oso interesgarriak, Nafarroako mugetan artzainenganik erdaraz bildutakoez osatuak, adibidez. Formakuntza sendoa izan zuen, Jesuiten Lagundian sartu baitzen eta 1959an apeztu. Herri literaturaren eta bertsolaritzaren alderako interesa goiz piztu zen haren baitan. 1961ean Auspoa bildumaren lehenbiziko alea atera zuen *Sagardoaren graziya* tituluaekin. Ondotik beste 300 libururen egiteko indarra izan zuen A. Zavalak. Nekaezina zela erratea eufemismoa da. Zenbat ordu eman zuen liburuen ekaia prestatzen, bertsolariekin, bertsozaleekin, hura gabe inoiz idatziko ez zutenekin, bertsopaperak erosten, biltzen eta sailkatzen ez da erraz neurtzea. Herri literaturan sortutakoa herriko jendeek ezagutzea eta haintzat hartzea erdietsi du Antonio Zavalak. Sortu zuen bilduman bederen euskara ez zela erdararen menpe segurtatu zuen eta hori izan da egin zuen lan erraldoiaren ekarpen gaitza. Gaitza eta iraunkorra.

Ondotik, Andres Iñigok Santiago Ezkerra (1925-05-06 / 2009-3-22) euskaltzain urgazlearen aldeko txostena irakurri du. Santiago Ezkerra Etxarri Aranatzen sortu zen 1925ean. Hamahiru urterekin Kaputxinoetan sartu zen Altsasun, ikasketak Iruñean bukatuz. Apeztu zen 1950ean. Predikulari gisa ibili zen Nafarroan, euskaraz naski eta bestalde artikulatu ugari argitarazi zituen 1919an Kaputxinoek berek sortu zuten *Zeruko argia* aldizkarian. Haren izengoitia *Lizarrusti* izan zen. 1956an *Mikel Goiangeruari bederatziturrena* argitaratu zuen eta beste erlijiozko liburuak. 1961ean frailegoa utzi zuen, Madrilera joan zen lan egitera proba-zuzentzaile gisa. Han ezkondu zen eta familiatu, lau haur ukanik. Gutun anitz gurutzatu zituen N. Tauer euskalariarekin. Euskararen alde tinko agertu zen, berak zerabilen euskara ez baldin bazuen gehiegi hurbildu nahi euskara batuaren aldera. A. Iñigoren hitzetan, «euskalzale fina eta euskararekin konprometitua».

Xabier Kintanak Juri Zytsar (1928 / 2009-6-23) Errusiako ohorezko euskaltzain urgazlearen aldeko txostena irakurri du. Volga ondoan sortu zen Siberiako Kuybyxev deitzen zen hirian eta han ere hil 2009an, ordurako Samara izen zaharra berreskuratu zuen hiri berean. Ahatik J. Zytsar luzaz egon zen sorterritik kanpo. Hizkuntzen ikasteko dohaia erakutsi zuen gaztetik eta bereziki euskara ongi ikasi zuen, hainbestetaraino non bere tesia defendatu baitzuen Leningraden, tesiaren gaitzat euskara hartuta. Itzulpen lanak egin behar izan zituen Nazio Batuen bilere-tan edo eta Vietnamen: hain zuzen hara igorria izan zen errusiera irakats diezaien lekuko soldaduei gerla denboran. Baina bertzenaz lehenik intelektuala izan zen, eta euskarari buruzko jakitatea sakondu zuen. Lehenik K. Mitxelenarekin harremant-tan sartu zen eta gero euskaltzale askorekin eta bereziki X. Kintanarekin. Tbilisiko Unibertsitatean irakasle egon zen, linguistika, Kaukasiako hizkuntzak eta euskara ikertzen. Aldi batez baizik ez zen jin Euskal Herrira, Euskaltzaindiak gomiatu bai-tzuen 1980an Euskalarien Biltzarrean.

Jean-Louis Davantek Roger Idiart (1931-1-15 / 2009-8-27) euskaltzain urgazlearen aldeko txostena irakurri du. Azkainen sortu zen R. Idiart laborari-etxe batean, eta 1955ean apeztu zen, Uztaritzeko apeztegian ikasketak egin ondoan. Euskal Herriaren aldeko grina gazterik erakutsi zuen, dela *Enbata* agerkarian ateratzen zituen artikuluen bitartez, dela antzerkian Piarres Larzabalekin edo bakarrik emanarazi zituen ikusgarriak lekuko. Zuberoara igorria izan ondoan, han ezin hobeki kokatu zen: han zegoelarik zituen osatu bere kantu famatuenak, hala nola *Basabürüian Montori* edo *Ez gal gure odol beroa...* Han ere bi pastoral egin zituen, *Xalbador* eta *Etxahun-Iñuri*, bera zuberotar izan gabe, R. Idiartek ez baitzuen ausartzia ments. Ausart baldin bazen, zorrotz eta artatsu, umorea ere bazuen nasaia, agian «nigar egiteko tirria ere maiz arraileriaz» estaltzen delako. Orogen buru, R. Idiart ez zen lotsa izan Larrungo mazelatik gaindi Orhiko maldara ibiltzeko euskararen hegaletan.

Mari Karmen Garmendiak Mikel Atxaga (1932-8-25 / 2009-9-10) euskaltzain urgazlearen aldeko txostena irakurri du. Urnietan sortu zen M. Atxagaren biografia osoa egin gabe, hori laster agertuko delarik hain zuzen berak zuzendutako *Bidegileak* bilduman, haren oinazeak eta azken kezka hunkigarriak aipatu ditu M. K. Garmendiak. Apirilean eskuratu zuen Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak «bidegile partikularri» eskaini omenaldia. M. Atxagak euskal kulturaren historian izan duen pisua oroitarazi du. Alde batetik erakundearen egitekoa beti nola sustatu duen, eta bestal-detik euskararen aldeko erakundetze lan isila eta berezia nola eramane duen laudatu du. Txosten egileak M. Atxagaren azken arranguretarik bat aipatu gabe ezin zuen utzi, hots J. A. Pagolak prestatu *Jesus, hurbilketa historikoa* liburuaren euska-

razko bertsioa kalean ikustea, M. Atxagaren «biziaren pizgarri» izan baitira Nazaretoko Jesus, euskara eta Euskal Herria.

Azkenik, Jose Luis Lizundiak irakurri du Juan Jose Zearreta (1947-6-10 / 2009-11-7) urgazlearen aldeko txostena. Euskaltzaindiko kudeatzailearen heriotza krudela oraindikan hurbil dela, J.L. Lizundiak bost ataletan erakutsi ditu J. J. Zearretaren bizitzan izan ziren gertakari nagusi batzuk. Zornotzan sortu zen, eta ikasketak egin zituen Gabirian, Euban eta Bilbon. Gaztetik defentsan jokalaria ona agertu baldin bazen futboleant, ez zen makalago izan gero euskararen defentsan eta haren hedatzeko jardunaldi luzeetan. J.J. Zearretak gauzen tinko eta fermu antolatzeke zeukan joera bere bizitza guzian ezin hobeki erakutsi zuen. Lehenik ekonomia eragile gisa hasi zen Euskaltzaindian, erakundea oraindikan katakunbetan zegoela, hots, Erribera kaleko egoitza zaharrean, Bilbon. Ber denboran Alfabetatze eta Euskalduntze Koordinakundean 1970ean hasi zen, barnetegiak zutik emanez eta asmo didaktiko batez egindako liburu andana batean parte hartuz. Euskararen Gaitasun Agiria sortzeko ere langile porrokatu gisa agertu zen. Dударik gabe, ondoko urteetan eta hil artio Euskaltzaindiari berari eskaini zion bere indar gehiena, gutitan ikusten den kemen eta leialtasunarekin, harekin lanean ibili guztiek ondo dakiten bezala. Dударik gabe, Euskaltzaindiak eta euskararen etorkizunak asko zor diote Juan Jose Zearretari.

Txostenak entzutearekin batera, horman ipinitako pantailetan hildakoen argazki batzuk emanak izan dira, hitzaldien osagarri.

Zehaztasunez eta goxotasunez emandako sei txostenak entzun eta, berrikitan joandako lagunek utzi diguten eredia kontuan hartzekoa dela erran ondoan, Andres Urrutia jaunak batzarra bukatutzat ematen du arratsaldeko seiak eta laurdetan.

Andres Urrutia,  
euskaltzainburua

Xarles Videgain,  
Idazkari lanetan (*Arautegia*, 24. art.)